URRIA
URTARRILA

2026

OCTUBRE
ENERO

# CIVIVOX



## HAUR ETA FAMILIENDAKO PROGRAMAZIOA

## PROGRAMACIÓN INFANTIL Y FAMILIAR

**Jarduerak**
Iruña

**Actividades**
Pamplona

civivox



## KONDESTABLEA / CONDESTABLE

Kale Nagusia, 2

C/ Mayor, 2

Iruña 31001 Pamplona

948 224 249



## ITURRAMA

Eskirotz kalea, 24

C/ Esquíroz, 24

Iruña 31007 Pamplona

948 366 655



## JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA

Maiteminduen pas., 37

P.º de los Enamorados, 37

Iruña 31014 Pamplona
948 132 190



## MENDILLORRI

Sarriguren
Kontzejuaren kalea, 3

C/ Concejo de
Sarriguren, 3

Iruña 31016 Pamplona

948 164 114

010 Udal argibide-bulegoa

www.pamplonaescultura.es/eu

www.pamplona.es/eu

facebook.com/irunakulturada

@irunakulturada

@iruñakulturada

Pamplona es cultura - Iruña kultura da

Lege-gordailua: NA 2505/2009

Servicio de Información Municipal 010

www.pamplonaescultura.es

www.pamplona.es

facebook.com/pamplonaescultura

@Pamplonacultura

@pamplonaescultura

Pamplona es cultura

Depósito legal: NA 2505/2009



## ARROSADIA / MILAGROSA

Jose Vila eskola. Taxoare kalea, zk.g.

Escuelas José Vila. C/ Tajonar, s/n

Iruña 31006 Pamplona

948 292 802



## POMPELO

Salestarren plaza, 7.

Plaza Salesianos, 7

Iruña 31002 Pamplona

948 420 972



## SANDUZELAI / SAN JORGE

Gortari Doktorearen plaza, zk.g.

Plaza Doctor Gortari, s/n

Iruña 31012 Pamplona

948 136 400

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# INFORMAZIOA / INFORMACIÓN

## Jendeari arreta egiteko ordutegiak

Civivox guztiak. Astelehenetik larunbatera
9:00-14:00 / 17:00-22:00

Kondestablea. Igandeak
9:00-14:00 / 17:00-22:00

Iturrama, Mendillorri, Pompelo, Sanduzelai igandeetan irekia, programazioaren arabera.

## Horarios de atención al público

Todos los Civivox. De lunes a sábado
9:00-14:00 / 17:00-22:00

Condestable. Domingos
9:00-14:00 / 17:00-22:00

Iturrama, Mendillorri, Pompelo, San Jorge
Apertura domingos según programación.

## Izen emateak

Aurre izena beharrezkoa duten jardueretan parte hartzeko, hiru bide hauetako batean eman beharko da izena:

Online, Iruñeko Udalaren webguneetan (www pamplonaescultura.es/eu eta www.pamplona.es).

Aurrez aurre, edozein Civivox zentrotara joanda.

Telefonoz, 010 zenbakian (948420100an, mugikor batetik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

## Inscripciones

Para aquellas actividades que requieran de inscripción previa pueden realizarse mediante estas tres vías:

Online, en las páginas web del Ayuntamiento de Pamplona (www.pamplonaescultura.es / www.pamplona.es).

Presencialmente en cualquier centro Civivox.

Telefónicamente, en el teléfono 010 (948 420 100 si se llama desde móviles o desde fuera de Pamplona).

## Prezioak eta ordaintzeko erak

Iruñeko Udalaren 'Udalak edo haren erakunde autonomoek antolatutako hezkuntza, kultura, kirol, gizarte edo osasun sustapeneko ikastaro eta jardueretan sartu, izena eman edo matrikulatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen araua' (10. araua) aplikatuko da.

Ordainketa banku-txartelaren bidez eginen da, aurrez aurre, telefonoz edo online.

## Precios y modalidades de pago

Se aplican los precios y bonificaciones recogidos en la 'Norma reguladora de precios públicos por entrada, inscripción o matrícula en cursos y actividades de carácter educativo, cultural, deportivo, social o de promoción a la salud organizados por el ayuntamiento o sus organismos autónomos' (Norma número 10) del Ayuntamiento de Pamplona.

El pago se realizará mediante tarjeta bancaria de manera presencial, telefónica u online.

## Sarrera jarduereetan

Behin jarduera hasita, ezin izanen da jardueran sartu, eta sarreraren zenbateako ez da itzuliko.

Aldez aurretik izena eman behar diren jarduereetan QR kodea irakurrita sartuko da. Kode hori posta elektronikoan jasoko da izena ematean.

## Acceso a las actividades

Una vez comenzada la actividad no se permitirá el acceso a la sala ni se devolverá el importe de la entrada.

El acceso a las actividades que requieren inscripción previa se realizará mediante lectura de código QR que se recibe en el correo electrónico en el momento de la inscripción.

## Itzulketak

Izena ematearen zenbatekoa soilik itzuliko da jarduera bere osoan edo hein batean garatzen ez bada.

## Devoluciones

El importe de la inscripción sólo se devolverá cuando no se preste o desarrolle la actividad total o parcialmente.

## Datuen babesa

Datuak babesteko araudia betetze aldera, jakizu Iruñeko Udala dela datu pertsonalak tratatzearen arduraduna, Udalak antolatutako jarduera eta ikastaroak kudeatzeko erabil daitezen. Baduzu eskubidea datuak eskuratzeko, okerrak badira zuzentzeko, eta ezabatzeko, Erregistro Orokorrean (kale Nagusia 2, 3011, Iruña) edota egoitza elektronikoan. Hemen kontsultatu ditzakezu tratamenduen zerrenda eta informazio osagarria: www.pamplona.es

Jarduerak hirian erroldaturik dagoen jendearentzat dira; eta, beraz, Udalak udal-erroldan kontsultatuko ditu haien datuak, erroldatuta daudela egiaztatzeko.

## Protección de datos

En cumplimiento de la normativa de protección de datos se le informa de que el Ayuntamiento de Pamplona es el responsable del tratamiento de los datos de carácter personal y los datos serán utilizados con la finalidad de gestionar las actividades y cursos organizados por el Ayuntamiento. Tiene derecho a acceder a los datos, rectificarlos en el caso de que no sean correctos, suprimirlos así como otros derechos dirigiéndose al Registro General (C/ Mayor 2, 31001, Pamplona) o a la sede electrónica. Puede consultar el listado de tratamientos y la información adicional en www.pamplona.es

Las actividades están dirigidas a las personas empadronadas en la ciudad por lo que el Ayuntamiento consultará sus datos en el padrón municipal con el fin de verificar su empadronamiento.

# AURKIBIDEA / ÍNDICE


| | | |
|---|---|---|
| *01.* | HAURRENDAKO ETA FAMILIENDAKO IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS INFANTILES Y FAMILIARES | 1 |
| *02.* | IPUINA ETA ASKOZ ERE GEHIAGO / CUENTOS Y MUCHO MÁS | 5 |
| *03.* | HAUR ETA FAMILIENDAKO ZINEMA / CINE INFANTIL Y FAMILIAR | 12 |
| *04.* | FAMILIENTZAKO ALANTEGIAK / TALLERES FAMILIARES | 14 |
| *05.* | GAZTEENTZAKO SORMEN GUNEAK / ESPACIOS CREATIVOS PARA JÓVENES | 15 |
| *06.* | MICROSTABLE 2026: IRUÑEKO MIKRO ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA / FESTIVAL DE MICRO ARTES ESCÉNICAS DE PAMPLONA | 17 |
| *07.* | SARASATEREN ONDAREA / EL LEGADO DE SARASATE | 20 |
| *08.* | RECORD-ARTE 3. EDIZIOA / 3º EDICIÓN RECORD-ARTE | 21 |


ARTISTA / HIZLARIA
ARTISTA / PONENTE

DATAK
FECHAS

ORDUTEGIA
HORARIO

PREZIOA
PRECIO

ASTEKO EGUNA
DÍA DE LA SEMANA

*09.* ILUSTRAZIOAREN EGUNA 2026 / DÍA DE LA ILUSTRACIÓN 2026 22

*10.* CIVIVOX INTHEMAPPING'26 23

*11.* GABONAK: ONDARE ZAINAK: ONDAREA AURKITZEA, BABESTU ETA SORTZEA / NAVIDAD: GUARDIANES DEL PATRIMONIO: DESCUBRIR, PROTEGER Y CREAR 27

AGENDA

# URRIA / OCTUBRE

## 10 LARUNBATA / SÁBADO

*17:30* **JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Mahai jokoen lantegia familian / Taller de juegos de mesa en familia
*Jokoak / Juegos* (14)

## 16 OSTIRALA / VIERNES

*17:30* **POMPELO**
Paperezko petaloak / Pétalos de papel
*Gazteendako lantegia / Taller para jóvenes* (15)

## 17 LARUNBATA / SÁBADO

*12:00* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Cuentos para que suene la flauta
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (05)

*18:00* **MENDILLORRI**
Sòmion. La ciudad de los objetos imposibles
*Txotxongiloak eta musika / Títeres y música* (01)

*18:30* **TXANTREA**
El día que la tierra explotó: una película de Looney Tunes
*Zinema / Cine* (12)

## 24 LARUNBATA / SÁBADO

*18:00* **ARROSADIA / MILAGROSA**
Beldurra? Ez horixe! *EU*
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (05)

## 25 IGANDEA / DOMINGO

*11:30* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
The strambotik kabaret
*Mikro-arte eszenikoak / Micro-artes escénicas* (19)

*12:00* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
The strambotik kabaret
*Mikro-arte eszenikoak / Micro-artes escénicas* (19)

*12:30* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
The strambotik kabaret
*Mikro-arte eszenikoak / Micro-artes escénicas* (19)

## 31 LARUNBATA / SÁBADO

*12:00* **JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
The first Jack O'Lantern *EN*
*Storytelling* (06)

# AZAROA / NOVIEMBRE

## 07 LARUNBATA / SÁBADO

*10:30* **MENDILLORRI**
De todo corazón
*Clown umetxoendako / Clown para bebés* (23)

*12:00* **ARROSADIA / MILAGROSA**
¡Ven que te cuento!
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (06)

*12:00* **MENDILLORRI**
Bihotz Bihotzez EU
*Clown umetxoendako / Clown para bebés* (23)

*17:30* **JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Mahai jokoen lantegia familian / Taller de juegos de mesa en familia
*Jokoak / Juegos* (14)

*19:00* **POMPELO**
Amour
*Antzerkia / Teatro* (01)

## 08 IGANDEA / DOMINGO

*12:30* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Elara, bidaia bat izarretara EU
*Antzerkia / Teatro* (21)

*18:00* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Elara, un viaje a las estrellas
*Antzerkia / Teatro* (21)

## 12 OSTEGUNA / JUEVES

*17:30* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Zirriborroaren jaia / Fiesta del garabato
*Festa / Fiesta* (22)

*17:30* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Fanzine autobiografiko lantegia / Taller de Fanzine autobiográfico
*Lantegia / Taller* (22)

## 14 LARUNBATA / SÁBADO

*10:30* **MENDILLORRI**
Polen
*Umetxoendako instalazio interaktiboa / Instalación interactiva para bebés* (24)

*12:00* **JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Kapikua Cirkus EU
*Zirkua / Circo* (07)

*12:00* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Pablo Sarasateren misterioa / El misterio de Pablo Sarasate
*Escape-room* (20)

*12:00* **MENDILLORRI**
Polen
*Umetxoendako instalazio interaktiboa / Instalación interactiva para bebés* (24)

*18:30* **TXANTREA**
Basatiak EU
*Zinema / Cine* (12)

## 15 IGANDEA / DOMINGO

*10:30* **MENDILLORRI**
Competición de cortos +3
*Zinema / Cine* (24)

*12:00* **MENDILLORRI**
Competición de cortos +3
*Zinema / Cine* (24)

## 21 LARUNBATA / SÁBADO

*10:30* **MENDILLORRI**
Plenilunio
*Umetxoendako antzerkia / Teatro para bebés* (25)

*11:00* **SANDUZELAI / SAN JORGE**
Stop-Motion Smartphonerekin / Stop-Motion con Smartphone
*Gazteendako lantegia / Taller para jóvenes* (16)

*12:00* **KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Historias para dar la nota
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (07)

*12:00* **MENDILLORRI**
Plenilunio
*Umetxoendako antzerkia / Teatro para bebés* (25)

*12:30* **ITURRAMA**
Amares, amar los mares
*Antzerki musikala / Teatro musical* (02)

*18:00* **ITURRAMA**
Itsasmaite, itsasoak maitatu EU
*Antzerki musikala / Teatro musical* (02)

## 27 OSTIRALA / VIERNES

*19:00* **MENDILLORRI**
*Lehen haurtzaroarekin sortzen / Creando con la primera infancia*
*Mahai ingurua / Mesa redonda* (25)

## 28 LARUNBATA / SÁBADO

*10:30* **MENDILLORRI**
Parpadeo
*Umetxoendako antzerkia / Teatro para bebés* (26)

*12:00* **JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Cuentos amorosos y mentirosos
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (08)

*12:00* **MENDILLORRI**
Parpadeo
*Umetxoendako antzerkia / Teatro para bebés* (26)

*18:00* **ARROSADIA / MILAGROSA**
Cuentos amorosos y mentirosos
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (08)

# ABENDUA / DICIEMBRE

## 12 LARUNBATA / SÁBADO

**12:00 KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Pablo Sarasate y la caja de los disparates
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (08)

**12:30 SANDUZELAI / SAN JORGE**
Pulcinella txio-txinela
*Txotxongiloak eta musika / Títeres y música* (02)

**17:30 JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Mahai jokoen lantegia familian / Taller de juegos de mesa en familia
*Jokoak / Juegos* (14)

**18:00 SANDUZELAI / SAN JORGE**
Pulcinella txio-txinela EU
*Txotxongiloak eta musika / Títeres y música* (02)

## 19 LARUNBATA / SÁBADO

**12:00 ARROSADIA / MILAGROSA**
Ze nolako opariak ekarriko dizkigute? EU
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (09)

**18:00 JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Shesat - La magia de lo escrito
*Magia* (09)

**18:30 TXANTREA**
Los súper Elfkins
*Zinema / Cine* (13)

## 22 ASTEARTEA / MARTES

**18:00 POMPELO**
Bambi. Una vida en el bosque
*Txotxongilo, objektu eta dantza antzerkia / Teatro de títeres, objetos y danza* (27)

## 23 ASTEAZKENA / MIÉRCOLES

**11:30 POMPELO**
Kodize galdua / El códice perdido
*Escape-room* (27)

## 24 OSTEGUNA / JUEVES

**11:30 ARROSADIA / MILAGROSA**
Iruña ekinean!!! / ¡¡Pamplona en acción!!
*Lantegia / Taller* (28)

## 26 LARUNBATA / SÁBADO

**11:30 KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Argako argia / Luz del Arga
*Lantegia / Taller* (28)

**18:00 KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Bikes
*Zinema / Cine* (29)

## 28 ASTELEHENA / LUNES

**11:30 ITURRAMA**
Ikur galduak / Los símbolos perdidos
*Lantegia / Taller* (29)

**18:00 ITURRAMA**
Artilusio. La máquina de Greta
*Objetu-antzerkia / Teatro de objetos* (30)

## 29 ASTEARTEA / MARTES

**11:30 JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Iruña koloretan. Horma-irudi bat bertako ondarean ezagutzeko / Pamplona en colores: un mural para descubrir su patrimonio
*Lantegia / Taller* (30)

**18:00 JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Los ladrones del tiempo
*Antzerki-irisgarria / Teatro accesible* (31)

## 30 ASTEAZKENA / MIÉRCOLES

**11:30 SANDUZELAI / SAN JORGE**
Oroitzapenen artxiboa / El archivo de los recuerdos
*Lantegia / Taller* (32)

**18:00 SANDUZELAI / SAN JORGE**
El escondite de la abuela
*Txotxongilo eta aktore antzerkia / Teatro de títeres y actores* (32)

## 31 OSTEGUNA / JUEVES

**12:00 ARROSADIA / MILAGROSA**
Ikusi ezin diren gauzen kutxa / El cofre de las cosas que no se ven EU
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* (33)

# URTARRILA / ENERO

## 02 LARUNBATA / SÁBADO

**11:30 POMPELO**
Iruñeko dastatuak. tradizio kulinarioa ezagutzen / Sabores de Pamplona. Descubriendo la tradición culinaria
*Sukaldaritza-lantegia / Taller de cocina* 34

**18:00 POMPELO**
San Blas opilak eginen ditugu! histzoria duen gozokia / ¡Hacemos tortas de San Blas! Dulce con historia *EU*
*Sukaldaritza lantegia / Taller de cocina* 34

## 04 ASTELEHENA / LUNES

**11:30 MENDILLORRI**
Iruñeko Harresietako Sentinel Errobotikoak / Centinelas robóticos de las murallas de Pamplona
*Robotika lantegia / Taller de robótica* 35

**18:00 MENDILLORRI**
Museoaren zaindariak *EU*
*Zinema / Cine* 35

## 05 ASTEARTEA / MARTES

**11:30 ARROSADIA / MILAGROSA**
Ondarearen kapsula / La cápsula del patrimonio
*Lantegia / Taller* 36

## 09 LARUNBATA / SÁBADO

**12:00 KONDESTABLEA / CONDESTABLE**
Cuentos en clave de...¡Ja!!!!!
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* 10

**18:00 MENDILLORRI**
Egunen batean *EU*
*Antzerkia / Teatro* 03

## 16 LARUNBATA / SÁBADO

**12:00 ARROSADIA / MILAGROSA**
Cuentos para jugar con la música
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* 10

**18:00 JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Historias para viajar cantando
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* 11

**18:30 TXANTREA**
Sablehortz kapitaina eta Greleko kondesa *EU*
*Zinema / Cine* 13

## 23 LARUNBATA / SÁBADO

**10:30 ITURRAMA**
Mimesis
*Dantza / Danza* 03

**11:00 ITURRAMA**
Glass painting
*Gazteendako lantegia / Taller para jóvenes* 16

**12:00 ITURRAMA**
Mimesis
*Dantza / Danza* 03

## 30 LARUNBATA / SÁBADO

**17:30 JUSLARROCHA / JUS LA ROCHA**
Mahai jokoen lantegia familian / Taller de juegos de mesa en familia
*Jokoak / Juegos* 14

**18:00 ARROSADIA / MILAGROSA**
"El maletín del Doctor Cuento". Cuéntanos cuentos y cuentos y cuentos
*Ipuin-kontaketa / Cuentacuentos* 11

## 31 IGANDEA / DOMINGO

**18:00 POMPELO**
Jazz for children
*Musika ikuskizuna / Espectáculo musical* 04

# 01 HAURRENDAKO ETA FAMILIENDAKO IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS INFANTILES Y FAMILIARES

## SÒMION. LA CIUDAD DE LOS OFICIOS IMPOSIBLES

### TXOTXONGILOAK ETA MUSIKA ZUZENEAN

Galdetzen digutenean, "Zer izan nahi duzu handia zarenean?", guztiek espero dute esatea medikua, irakaslea, futbolaria... Eta orain, youtuberra, tira. Baina, ba ote dago lekurik sabaietan erratza pasatu nahi duenarentzat?

*SÒMION*. *La ciudad de los oficios imposibles* familiendako txotxongilo ikuskizuna, musika zuzenean da, lanbide guztiak bitxiak diren hiri batera eramanen gaituena: kaleak jartzen dituen gizona, iratzartzailea, txori-txioen maistra, zuhaitz-hostoen margotzailea, bihotz urratuen jostuna...

### TÍTERES CON MÚSICA EN DIRECTO

Cuando nos preguntan "¿Qué quieres ser de mayor?" Esperan que digamos médico, profesora, futbolista... bueno y ahora youtuber, pero ¿Dónde tiene cabida alguien que quiere barrer techos?

*SÒMION*. *La ciudad de los oficios imposibles* es un espectáculo familiar de títeres con música en directo, que nos hace viajar a una ciudad donde todos los oficios son peculiares: el hombre que pone las calles, el despertador, la maestra de canto de pájaros, el pintor de hojas de árbol, la costurera de corazones rotos...

**MENDILLORRIKO CIVIVOXA / CIVIVOX MENDILLORRI**

EL QUE MA QUEDA DE TEATRE

URRIAK 17 OCTUBRE

18:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

3 €. Aurrez izena emanda / 3 €. Con inscripción previa



## AMOUR

### ANTZERKI FAMILIARRA

Hitzik gabeko ikuskizuna. Hitzik gabe eta maskarak jantzita, eszenatokian mundu xarmangarria sortuta. Baldintzarik gabeko maitasunaren eta desafekzioaren artean dagoen marra meheari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituen ikuskizuna.

*IRUÑALDIA - EUSKARAK EDERTZEN DU IRUÑEA (3. EDIZIOA) Zikloko ikuskizuna

### TEATRO FAMILIAR

Espectáculo sin palabras. Sin palabras y con máscaras sazona en el escenario un mundo encantador. Un espectáculo que nos invita a reflexionar sobre la delgada línea que existe entre el amor incondicional y la desafección.

*Espectáculo del ciclo IRUÑALDIA - EUSKARAK EDERTZEN DU IRUÑEA (3ª EDICIÓN)

**POMPELO CIVIVOXA / CIVIVOX POMPELO**

MARIE DE JONGH

AZAROAK 7 NOVIEMBRE

19:00

+ 7, heldu batek lagunduta / + 7, en compañía de una persona adulta

10 €. Aurrez izena emanda / 10 €. Con inscripción previa



## ITSASMAITE, ITSASOAK MAITATU

### PUBLIKO FAMILIARRARI ZUZENDUTAKO ANTZERKI MUSIKALA

Neguko ekaitz-gau batean, Pepa "The bottle" pirata zaharrarekin topo egin genuen, eta bost kontinenteetan barrena egindako ibilaldi luzeak gogoratu genituen. Bere bizitza-liburuarekin batera, "El Ulises" itsasontzian bizitako iragan bateko abenturak eta zorigaitzak biziaraziko dizkigu. Peparekin gogoratuko ditugu nola iritsi zen Japoniara, nola defendatu zituen animaliak Lagosen, nola bidaiatu zuen Yemayák kulunkatutako olatuen gainean, nola dantzatu zuen Ozeanian edo nola, zahar eta oso zahar, itzuli zen bera jaiotzen ikusi zuten labar eskoziarretara.

**ITURRAMAKO CIVIVOXA / CIVIVOX ITURRAMA**

PRODUCCIONES MAESTRAS

AZAROAK 21 NOVIEMBRE

12:30

18:00 EU

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

3 €. Aurrez izena emanda /
3 €. Con inscripción previa

## AMARES, AMAR LOS MARES

### TEATRO MUSICAL DESTINADO AL PÚBLICO FAMILIAR

En una tormentosa noche de invierno nos encontramos a la vieja pirata Pepa "The bottle" recordando sus largas travesías por los cinco continentes. Junto a su libro de vida nos hará vivir las aventuras y desventuras de un pasado a bordo de su barco "El Ulises". Con Pepa recordaremos cómo llegó hasta Japón, cómo defendió a los animales en Lagos, cómo viajó sobre las olas mecidas por Yemayá, cómo bailó en Oceanía o cómo ya de vieja y revieja, volvió a los acantilados escoceses que la vieron nacer.



## PULCINELLA TXIO-TXINELA

### TXOTXONGILOAK, MUSIKA ZUZENEAN

Napoliko tradizioan oinarritua dagoen Pulcinellak gurekin partekatzen du bizitza ikusteko bere-berea duen modua; beti nekaezina, errebeldea eta bitxia, sentibera eta inozoa, bizitzaren oztopo eta erronken aurrean. Maitasuna, boterea, egoismoa, traizioa... umore barre-eragilearen bidez, erritmo zorabiagarrian eta musika zuzenean.

**SANDUZELAIKO CIVIVOXA / CIVIVOX SAN JORGE**

ZURRUNKA TEATRO

ABENDUAK 12 DICIEMBRE

12:30

18:00 EU

+ 6, heldu batek lagunduta /
+ 6, en compañía de una persona adulta

3 €. Aurrez izena emanda / 3 €. Con inscripción previa

### TÍTERES CON MÚSICA EN DIRECTO

La tradición napolitana de Pulcinella comparte en esta adaptación el auténtico modo de vivir la vida del personaje; siempre incansable, rebelde y original, sensible, inocente y emotiva ante las dificultades y pruebas de la vida. El amor, el poder, el egoísmo, la traición... a través de un humor hilarante, un ritmo trepidante y música en directo.



## EGUNEN BATEAN EU

### HAUR ANTZERKIA

Iontxu naiz eta kazu batekin jaio nintzen... Kazu honek botere arraroa du...

Jendeak ez nau ikusten, kazua besterik ez dute ikusten, beldurtu egiten ditu eta ez dakite nola tratatu behar nauten.

Isabelle Carrierren «El cazo de Lorenzo» ipuinean oinarritua da (erreferentzia hezkuntza inklusiboan). Antzezlanak desberdintasuna du gogoetagai, aditzera emanda desberdintasuna gutako bakoitzari berez datxekigun zerbait dela; izan ere, denok aldez edo moldez ezberdinak garela pentsatzea askoz ere aberasgarriagoa da denok -“pepit@” izan ezikberdinak garela pentsatzea baino.

**MENDILLORRIKO CIVIVOXA / CIVIVOX MENDILLORRI**

BEHIBI'S TEATRO ANTZERKIA

URTARRILAK 9 ENERO

18:00

Jende guztiarendako / Todos los públicos

3 €. Aurrez izena emanda / 3 €. Con inscripción previa

### TEATRO INFANTIL

Soy Iontxu y nací con un cazo. Un cazo que tiene un poder extraño... la gente no me ve, solo ven el cazo y les asusta y no saben cómo tratarme.

Basado en el cuento «El cazo de Lorenzo» de Isabelle Carrier, un referente en la educación inclusiva, la obra reflexiona sobre la diferencia, presentándola como algo intrínseco de cada un@ de nosotro@s, porque pensar que tod@s somos diferentes de alguna manera es mucho más enriquecedor que pensar que tod@s somos iguales excepto “pepit@”.



## MIMESIS

### HAURRENDAKO DANTZA

*Mímesis* lehen haurtzaroko esperientzia artistiko bat da, imitazioan oinarritua, mundua nolakoa den jakiteko. Dantza-ikuskizuna da, bizitzari hasiera emateko erritual gisa eraikia, non espazioa, argia, soinua eta teknologia berriak eszenan uztartzen baitira ekosistema jakin bat sortzeko, haurrak eta familiak ere ardatz harturik.

Publikoa ekintzaren inguru osoan jartzen da, 360 gradutan, arreta eta aurkikuntza bultzatzen dituen espazio malgu batean

**ITURRAMAKO CIVIVOXA / CIVIVOX ITURRAMA**

ZIG ZAG DANZA

URTARRILAK 23 ENERO

10:30
12:00

0-4 urte, heldu batek lagunduta (gehienez heldu bat umetxu bakoitzarekin) / 0-4 años en compañía de una persona adulta (máximo una persona adulta por cada bebé)

3 €. Aurrez izena emanda / 3 €. Con inscripción previa
Norberak berek sarrerarekin sartu behar du (hala helduek nola umetxoek) / Todas las personas deben acceder con su entrada tanto personas adultas como bebés)

### DANZA INFANTIL

*Mímesis* es una experiencia artística para primera infancia, que parte de la imitación como vía de conocimiento del mundo. Un espectáculo de danza que se construye como un ritual iniciático a la vida en el que el espacio, la luz, el sonido y las nuevas tecnologías se conjugan en escena para crear un ecosistema en el que los más pequeños y sus familias también son protagonistas.

El público se acomoda 360 grados alrededor de la acción en un espacio voluble que invita a la atención y el descubrimiento...



## JAZZ FOR CHILDREN

### MUSIKA IKUSKIZUNA

Bandako kide dira Noa Lur (ahotsa), Alain Concepción (ahotsa), Tony Pereyra (gitarra), Ricardo Alonso (baxu elektrikoa) eta David Fernández (bateria). va haur eta helduengana hurbiltzea proposatzen dute hurbiltasunez, jolastuz eta ikusleek parte hartuz. Ikuskizunak bandako kide izatera gonbidatzen ditu haurrak, eta horrela ikasiko dute jazza jolasa ere izan daitekeela: inprobisatzea, entzutea, erantzutea eta, musikak bideraturik, gure gogoa dantzan uztea.

Tonu komikoa eta bizia erabiliz, proposamenak familiei ezagunak zaizkien soinu-bandekin fusionatzen du jazzaren hizkuntza: Frozen, Aladdin, Gru edo Mario Bros. Horrela, zubi bat sortzen dute haurren irudfiteria musikalaren eta zuzenekoaren indarraren artean.

### ESPECTÁCULO MUSICAL

La banda, compuesta por Noa Lur (voz), Alain Concepción (voz), Tony Pereyra (guitarra), Ricardo Alonso (bajo eléctrico) y David Fernández (batería), propone una experiencia pensada para acercar el Jazz a chikis y grandes de una forma divertida, participativa y cercana. El espectáculo invita al público infantil a sentirse parte de la banda, descubriendo cómo el Jazz también puede ser un juego: improvisar, escuchar, responder y dejarse llevar por la música.

Con un tono cómico y dinámico, la propuesta fusiona el lenguaje del Jazz con bandas sonoras reconocibles para el público familiar, como Frozen, Aladdin, Gru o Mario Bros, creando un puente entre el imaginario musical de la infancia y la energía del directo.

**POMPELO CIVIVOXA / CIVIVOX POMPELO**

JAZZ FOR CHILDREN

URTARRILAK 31 ENERO

18:00

Jende guztiarendako / Todos los públicos

3 €. Aurrez izena emanda / 3 €. Con inscripción previa



# 02 IPUINA ETA ASKOZ ERE GEHIAGO / CUENTOS Y MUCHO MÁS

## CUENTOS PARA QUE SUENE LA FLAUTA

### FAMILIENDAKO IPUIN-KONTAKETA

Unibertso musikaleko istoriorik nabarmenenak entzuteko elkartuko gara, eta 3ra arte zenbatuko dugu; ondoren, batera eginen dugu txistu... ea txirulak jotzen duen eta nota ematen dugun!... nota berbera.

### CUENTACUENTOS EN FAMILIA

Nos juntaremos para escuchar las historias más destacadas del universo musical y contaremos hasta 3, a continuación silbaremos a la vez ... ¡a ver si suena la flauta y damos la nota! ... la misma nota.

**KONDESTABLE CIVIVOXA. PABLO SARASATE MUSEO-ARETOA / CIVIVOX CONDESTABLE. SALA MUSEO PABLO SARASATE**

SERGIO DE ANDRÉS

URRIAK 17 OCTUBRE

12:00

+4, heldu batek lagunduta /
+4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte /
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## BELDURRA? EZ HORIXE! EU

### IPUIN KONTAKETA

Gau beltza gertu dago eta ohiturak markatzen duen bezala sutondoan eseriko dira familiak beldurrezko ipunak kontatzera. Baina beldurrak ere batzuetan barregura eman dezake, dibertigarria izan daiteke, eta gure mitologiako pertsonaia zoragarriak ezagutzeko aukera eman dezake. Sorgin eroak, otso traketsak... Beldurra? Ez horixe!

### CUENTACUENTOS

La gau beltza se acerca y como es costumbre las familias se reunirán al lado de la chimenea para contar historias de miedo. Pero el miedo a veces puede dar mucha risa, puede ser muy divertido, y puede ayudarnos a conocer personajes maravillosos de nuestra mitología. Brujas locas, lobos torpes... ¿Miedo? ¡Para nada!

**ARROSADIAKO CIVIVOXA / CIVIVOX MILAGROSA**

MAITANE PÉREZ

URRIAK 24 OCTUBRE

18:00

+4, heldu batek lagunduta /
+4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## THE FIRST JACK O'LANTERN EN

### STORYTELLING

Barneratu Halloween eguneko istorio magiko batean, haurrak abenturan murgildurik ibiliko baitira. Jackenkin batera, puzzleak egin, izaki sorgindunei aurre egin eta Jack O'Lanternek zer jatorri zuen ikasiko dute. Istorio dibertigarri eta murgilgarria etxeko guztientzat.

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA / CIVIVOX JUS LA ROCHA**

IÑIGO GARCÍA [TOP TEN ACADEMY]

URRIAK 31 OCTUBRE

12:00 (duración aproximada 40 minutos)

+4, heldu batek lagunduta / +4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte / Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo

### STORYTELLING

Step into a magical Halloween tale where children become part of the adventure. Together with Jack, they'll solve puzzles, face enchanted creatures and discover the origins of the Jack O'Lantern. A fun and immersive storytelling show in English for the whole family.

Adéntrate en una historia mágica de Halloween en la que niñas y niños serán parte de la aventura. Con Jack resolverán puzles, se enfrentarán a criaturas encantadas y descubrirán los orígenes de Jack O'Lantern. Una historia divertida e inmersiva para toda la familia.



## ¡VEN QUE TE CUENTO!

### IPUIN KONTAKETA

Baldin bazatoz, istorio bat kontatuko dizut. Sekretuz eta ustekabez beteriko istorio bat. Elkarrekin egonen gara eta jakinen dugu beti, beti, ikas daitekeela zerbait berri eta dibertigarria. Zatoz eta kontatuko dizut!

**ARROSADIAKO CIVIVOXA / CIVIVOX MILAGROSA**

ESTITXU ARROYO

AZAROAK 7 NOVIEMBRE

12:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo

### CUENTACUENTOS

Si vienes te contaré una historia. Una historia llena de secretos y sorpresas. Estaremos junt@s y descubriremos que siempre, siempre, se puede aprender algo nuevo y divertido. ¡Ven que te cuento!



## KAPIKUA CIRKUS EU

### ZIRKUA

Jardueran, zirkuaren funtsa bi clownen bidez biziberrituko da; hori bai, saioaren egunean, badirudi biek ere beren trebetasun guztiak ahaztu dituztela. M. Duve, Frantziatik iritsia, baloi-futbolekin saiatuko da bere oreka eta trebezia erakusten. Mr. Riesgo, bestalde, bere oreka-saio ikusgarria erakusten saiatuko da zilindro gainean, goi-goian. Eta Troup Bertoloto-k malabare-saio ederra, arrautza gordinak erabiliz.

### CIRCO

En esta actividad la esencia del circo cobra vida a través de dos clowns que el día de la función parecen haber olvidado todas sus habilidades. M. Duve, llegado desde Francia, intentará presentar su equilibrio y destreza con los balones de futbol. Mr. Riesgo intentará mostrar su impresionante número de equilibrio sobre rulo a gran altura. Y la Troup Bertoloto su número de malabares con huevos crudos.

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA / CIVIVOX JUS LA ROCHA**

LEIRE CATALÁ [PRÓSPERO TEATRO]

AZAROAK 14 NOVIEMBRE

12:00

+ 4, heldu batek lagunduta (1 persona adulta/familia) / + 4, en compañía de una persona adulta (1 persona adulta/familia)

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte / Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo




## HISTORIAS PARA DAR LA NOTA

### FAMILIENDAKO IPUIN-KONTAKETA

Ipuin saio oso afinatua ederki nabarmentzeko.

### CUENTACUENTOS EN FAMILIA

Sesión de cuentos muy afinada para “dar el cante”.

**KONDESTABLE CIVIVOXA. PABLO SARASATE MUSEO-ARETOA / CIVIVOX CONDESTABLE. SALA MUSEO PABLO SARASATE**

SERGIO DE ANDRÉS

AZAROAK 21 NOVIEMBRE

12:00

+4, heldu batek lagunduta / +4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte / Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## CUENTOS AMOROSOS Y MENTIROSOS

### IPUIN KONTAKETA

Ipuinak paperezko antzokitxoekin, zuzenean marraztuz eta txotxongilo lauarekin kontatuak. Maitasunari, irudizkoari... buruzko istorioak, leku miresgarrietara eramanen gaituztenak eta begirada berria proposatuko digutenak.

### CUENTACUENTOS

Cuentos narrados con teatrillos de papel, dibujo en directo y títere plano. Historias sobre el amor, lo imaginario... que nos transportarán a lugares maravillosos y nos propondrán una nueva mirada.

COLECTIVO HUMO - MANUEL ALIAGA

AZAROAK 28 NOVIEMBRE

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA / CIVIVOX JUS LA ROCHA**

12:00

**ARROSADIAKO CIVIVOXA / CIVIVOX MILAGROSA**

18:00

+4, heldu batek lagunduta / +4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte / Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## PABLO SARASATE Y LA CAJA DE LOS DISPARATES

### FAMILIENDAKO IPUIN-KONTAKETA

Saio honetan, Pablo Sarasateren zorroak ez du instrumenturik bat bera ere gordeko... Oraingoan, istorio zentzugabeak gordeko ditu kontzertu batean kontatu ahal izateko.

### CUENTACUENTOS EN FAMILIA

En esta sesión el estuche del violín de Pablo Sarasate no guardará ningún instrumento ... esta vez guardará historias disparatadas para que se puedan contar en un concierto.

**KONDESTABLE CIVIVOXA. PABLO SARASATE MUSEO-ARETOA / CIVIVOX CONDESTABLE. SALA MUSEO PABLO SARASATE**

SERGIO DE ANDRÉS

ABENDUAK 12 DICIEMBRE

12:00

+4, heldu batek lagunduta / +4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte / Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## ZE NOLAKO OPARIAK EKARRIKO DIZKIGUTE? EU

### IPUIN KONTAKETA

Opariak ez dira beti ukigarriak. Batzuetan konpainia on bat izatea opari bat da. Edo txokolate bero eta goxo bat askaltzea hotza egiten duenean. Edo istorio on bat entzun eta familian partekatu... Zatozte entzutera zer nolako opariak parteka ditzakegun denon artean!

### CUENTACUENTOS

Los regalos no siempre son tangibles. A veces tener una buena compañía es un regalo. O merendar un chocolate caliente y delicioso cuando hace frío. O escuchar una buena historia y compartirla en familia... ¡Venid a oír qué regalos podemos compartir entre todos!

**ARROSADIAKO CIVIVOXA / CIVIVOX MILAGROSA**

VENTURA RUIZ

ABENDUAK 19 DICIEMBRE

12:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## SHESAT – LA MAGIA DE LO ESCRITO

### MAGIA

Zer gertatzen da hitz bat posibilitate bat izateari utzi eta idatzita geratzen denean? SESHAT magia eta antzerki ikuskizun bat da, hitzen eta oroitzapenen boterea arakatzen duena, bai eta haien bidez eraikitzen ditugun istorioen boterea ere. Seshat inspirazio-iturri harturik (hau da, idazketaren, liburuen eta erregistroen antzinako jainkosa egiptoarra), ikuskizunak jolaserako, misteriorako eta harridurarako gai bihurtzen du hitz idatzia.

### MAGIA

¿Qué ocurre cuando una palabra deja de ser una posibilidad y queda escrita? SESHAT es un espectáculo de magia y teatro que explora el poder de las palabras, los recuerdos y las historias que construimos a través de ellos. Inspirado en Seshat, la antigua diosa egipcia de la escritura, los libros y los registros, el espectáculo convierte la palabra escrita en materia de juego, misterio y asombro.

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA / CIVIVOX JUS LA ROCHA**

MAGO ITZAL

ABENDUAK 19 DICIEMBRE

18:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## FAMILIENDAKO IPUIN-KONTAKETA

Gustura barre egiteko ipuin-saioa, erabat “desafinatuak” gelditzen garen arte.

## CUENTOS EN CLAVE DE ... ¡JA!!!!!!!

## CUENTACUENTOS EN FAMILIA

Sesión de cuentos para reír hasta quedarnos totalmente “desafinados”.

**KONDESTABLE CIVIVOXA. PABLO SARASATE MUSEO-ARETOA / CIVIVOX CONDESTABLE. SALA MUSEO PABLO SARASATE**

SERGIO DE ANDRÉS

URTARRILAK 9 ENERO

12:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## IPUIN KONTAKETA

Abestien, mugimenduaren, soinu-jokoen eta tresnen bidez, ikusleek modu aktiboan parte hartuko dute narrazioan, sormena eta irudimena sustatuta, elkarrekin gozatzeko. Familiako ipuinen magia eta sonoritatea ezagutzeko proposamen ludikoa.

## CUENTOS PARA JUGAR CON LA MÚSICA

## CUENTACUENTOS

A través de canciones, movimiento, juegos sonoros e instrumentos, los asistentes participarán activamente en la narración, fomentando la creatividad, la imaginación y el disfrute compartido. Una propuesta lúdica para descubrir la magia y la sonoridad de los cuentos en familia.

**ARROSADIAKO CIVIVOXA / CIVIVOX MILAGROSA**

LOS CUENTOS MUSICALES DE NOEMÍ

URTARRILAK 16 ENERO

12:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo



## HISTORIAS PARA VIAJAR CANTANDO

### IPUIN KONTAKETA

Hainbat kulturatako ipuinak ezagutuko ditugu, oso pertsonaia harrigarrien bidez: printzesa ez oso ohikoak, bizitzaz betetako panpina errusiarrak, edo basoan ezkutatutako hartz handi bat. Perkusio instrumentuak, antzezpena eta parte-hartze handia, haurrak abentura bakoitzeko protagonista izan daitezen.

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA / CIVIVOX JUS LA ROCHA**

LOS CUENTOS MUSICALES DE NOEMÍ

URTARRILAK 16 ENERO

18:00

+ 4,heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo

### CUENTACUENTOS

Descubriremos cuentos de diferentes culturas a través de personajes tan sorprendentes como princesas poco convencionales, muñecas rusas llenas de vida o un enorme oso escondido en el bosque. Instrumentos de percusión, dramatización y mucha participación, convertirán a los niños y niñas en protagonistas de cada aventura.



## “EL MALETÍN DEL DOCTOR CUENTOS”. CUENTANOS CUENTOS Y CUENTOS Y CUENTOS

### IPUIN KONTAKETA

Ipuin Doktorea, espirituaren mediku ibiltaria. Haserre, tristura, beldur, bakardade eta diagnostikatu gabeko bestelako gaitzetan espezialista.

**ARROSADIAKO CIVIVOXA / CIVIVOX MILAGROSA**

JOSE FELIX OCHAGAVIA

URTARRILAK 30 ENERO

18:00

+ 4, heldu batek lagunduta /
+ 4, en compañía de una persona adulta

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte/
Gratuito. Entrada libre hasta completar aforo

### CUENTACUENTOS

Doctor Cuentos, médico ambulante del espíritu. Especialista en enfados, tristezas, miedos, soledades y otras dolencias sin diagnosticar.



# 03 HAUR ETA FAMILIENDAKO ZINEMA / CINE INFANTIL Y FAMILIAR

TXANTREAKO EKITALDI ARETOA / SALÓN DE ACTOS TXANTREA

18:30

Jende guztiarendako / Todos los públicos

Doan. Aurrez izena emanda / Gratuito. Con inscripción previa



## EL DÍA QUE LA TIERRA EXPLOTÓ. UNA PELÍCULA DE LOS LOONEY TUNES (THE DAY THE EARTH BLEW UP: A LOONEY TUNES MOVIE)

*Peter Browngardt. AEB / Estados Unidos. 2024. 91'.*
*Animazioa / Animación*

Porkyk eta Lucasek Lurra suntsitzeko konplot estralurtar maltzur bat deskubritzen dute. Nahi gabe, abentura zoro batean murgiltzen dira espazioan zehar.

Cuando Porky y Lucas descubren un siniestro plan extraterrestre para destruir la Tierra, se ven arrastrados a una misión intergaláctica llena de desastres cósmicos.

URRIAK 17 OCTUBRE




## BASATIAK (SAUVAGES) EU

*Claude Barras. Suitza / Suiza. 2024. 87'.*
*Animazioa / Animación*

Borneon, oihan tropikalean kokatutako herrixka batean, bizi da Keria, eta orangutan kume bat aurkituko du aitak lan egiten duen olio-palmondoen landaketan.

En Borneo, en el límite de la gran selva tropical, Keria acoge a un bebé orangután, encontrado en la plantación de palmas de aceite en la que trabaja su padre.

AZAROAK 14 NOVIEMBRE




## LOS SÚPER ELFKINS (DIE HEINZELS)

*Ute von Münchow-Pohl. Alemania. 2024. 76'. Animazioa / Animación*

Helviren mundua hankaz gora jartzen da Bo-ren teknologia-adituen klanera batzen denean.

El mundo de Helvi se pone patas arriba cuando se une al clan de expertos en tecnología de Bo.

ABENDUAK 19 DICIEMBRE




## SABLEHORTZ KAPITAINA ETA GRELEKO KONDESA (KAPTEIN SABELTANN OG GREVINNEN AV GRAL) EU

*Are Austnes, Yaprak Morali & Rasmus A. Sivertsen. Norvegia / Noruega. 2025. 77'. Animazioa / Animación*

Raven eta Pinky bi lagun banaezin dira. Sable-hortz kapitain beldurgarriarekin (zazpi itsasoetako erregea) ari dira nabigatzen.

Raven y Pinky son dos amigos inseparables que navegan bajo las órdenes del temido Capitán Diente de Sable, el rey de los siete mares.

URTARRILAK 16 ENERO

04

# FAMILIENTZAKO ALANTEGIAK / TALLERES FAMILIARES

## MAHAI JOKOEN LANTEGIA FAMILIAN

LANTEGIA

Lantegi honetan, mahai jokoak ezagutuko ditugu elkarrekin, non partida bakoitza elkarrekin barre egiteko, ikasteko eta hazteko aukera bihurtzen den.

## TALLER DE JUEGOS DE MESA EN FAMILIA

TALLER

En este taller, descubriremos juntos juegos de mesa donde cada partida se convierte en una oportunidad para reír, aprender y crecer juntos.

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA / CIVIVOX JUS LA ROCHA**

D20 JUEGOS

URRIAK 10 OCTUBRE

17:30

2-5 urte, heldu batek lagunduta /
2-5 años, con una persona adulta

Doan. Aurrez izena emanda /
Gratuito con inscripción previa

AZAROAK 7 NOVIEMBRE

17:30

6-10 urte, familiarekin batera /
6-10 años, con una persona adulta

Doan. Aurrez izena emanda /
Gratuito con inscripción previa

ABENDUAK 12 DICIEMBRE

17:30

2-5 urte, familiarekin batera /
2-5 años, con una persona adulta

Doan. Aurrez izena emanda /
Gratuito con inscripción previa

URTARRILAK 30 ENERO

17:30

6-10 urte, familiarekin batera /
6-10 años, con una persona adulta

Doan. Aurrez izena emanda /
Gratuito con inscripción previa



# 05 GAZTEENTZAKO SORMEN GUNEAK / ESPACIOS CREATIVOS PARA JÓVENES

## GAZTEENTZAKO LANTEGIAK / TALLERES PARA JÓVENES

12-16 URTE / AÑOS

2 €. Aurrez izena emanda / 2 €. Con inscripción previa

Piztu zure alderik sortzaileena! Margotu, moztu, itsatsi, modelatu, nahastu koloreak, materialak eta teknikak. Zatoz esperimentatzera, sortzera eta, zer egin dezakezun ikusita, zu zeu ere harrituta geldituko zara. Eragin zure irudimenari eta sortu zerbait berezia zeure eskuekin! Gune aproposa da sortzeko, partekatzeko eta ongi pasatzeko gogoa duten gazteentzako, artez, musikaz eta giro onez inguratuta.

¡Activa tu lado más creativo! Pinta, corta, pega, modela, mezcla colores, materiales y técnicas. Ven a experimentar, crear y sorprenderte con lo que eres capaz de hacer. ¡Dale vida a tu imaginación y crea algo único con tus propias manos! Un espacio para jóvenes con ganas de crear, compartir y pasarlo bien rodeados de arte, música y buen rollo.

### PAPEREZKO PETALOAK

SORMEN LANTEGIA BUZTIN POLIMERIKOAREKIN

Lantegian, collage mugimenduduna arakatuko dugu lore zoragarrietako (orkideak, lirioak...) petaloen ilustrazioaren bidez. Formak, koloreak eta konposizioak izanen ditugu langai, bizitzaz eta mugimenduz beteriko pieza bat sortzeko.

### PÉTALOS DE PAPEL

TALLER CREATIVO CON ARCILLA POLIMÉRICA

En este taller exploraremos el collage en movimiento a través de la ilustración de pétalos de flores tan maravillosas como orquídeas o lirios. Jugaremos con las formas, los colores y las composiciones para crear una pieza llena de vida y movimiento.

**POMPELO CIVIVOXA / CIVIVOX POMPELO**

ART CINCO & KALIGRAMAK

URRIAK 16 OCTUBRE

17:30-19:00



## STOP-MOTION SMARTPHONEREKIN
### ANIMAZIO LANTEGIA

Lantegian, *stop-motion* edo "animazioa fotogramaz fotograma" deritzon animazio-teknika ikasiko dugu. Mugimendu-ilusioa sortzen du argazki finko batzuen segidatik abiatuta; hau da, elementu estatiko horiek poliki-poliki mugitzen dira. Geure animazioa egiten ikasiko dugu, smartphone bat eta eguneroko objektuak erabiliz, modu errazean eta sormenez esperimentatuta bai mugimenduarekin, bai irudiarekin.

## STOP-MOTION CON SMARTPHONE
### TALLER DE ANIMACIÓN

En este taller descubriremos el *stop-motion* o "animación fotograma a fotograma", una técnica de animación que crea la ilusión de movimiento a partir de una sucesión de fotografías fijas, en las que esos elementos estáticos se van moviendo poco a poco. Aprenderemos a realizar nuestra propia animación utilizando un smartphone y objetos cotidianos, experimentando de forma sencilla y creativa con el movimiento y la imagen.

**SANDUZELAIKO CIVIVOXA / CIVIVOX SAN JORGE**

DIEGO ESCRIBANO OTT - OTTSTUFF

AZAROAK 21 NOVIEMBRE

11:00 – 13:00



### LANTEGIA

Lantegi honetan, gainazal gardenen gainean margotzeko modu artistiko bat ezagutuko dugu, betiko kristalera tradizionaletan inspiratua. Lan berezi bat sortzeko, baita sormen-esperientzia erraz, polit eta bisual batez gozatzeko, kolorea, argia eta diseinua esploratuko ditugu.

## GLASS PAINTING
### TALLER

En este taller descubriremos una forma artística de pintar sobre superficies transparentes, inspirada en las tradicionales vidrieras. Exploraremos el color, la luz y el diseño para crear una pieza única y disfrutar de una experiencia creativa, sencilla y muy visual.

**ITURRAMAKO CIVIVOXA / CIVIVOX ITURRAMA**

DIANA ARBONIÉS - LA CRAFETERA

URTARRILAK 23 ENERO

11:00 – 13:00



# 06 MICROSTABLE 2026: IRUÑEKO MIKRO ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA / FESTIVAL DE MICRO ARTES ESCÉNICAS DE PAMPLONA

URRIAK 17-25 OCTUBRE

La Nave Producciones Teatrales S.L.ek, Iruñeko Udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, “MICROESTABLE 2026” Iruñeko Mikro Arte Eszenikoen IX. Jaialdia gauzatu eta koordinatuko du urriaren 17an, 18an, 22an, 23an, 24an eta 25ean, hainbat proposamen eszeniko garaikide aurkezteko.

La Nave Producciones Teatrales S.L., en colaboración con el Ayuntamiento de Pamplona y el Gobierno de Navarra, llevará a cabo y coordinará los días 17, 18, 22, 23, 24 y 25 de octubre la IX edición del Festival de Microartes Escénicas “MICROSTABLE 2026”, que presentará diversas propuestas escénicas contemporáneas.

## LA CAJITA

### HOLOGRAMA ANTZERKIA

